

Donostian, 2020ko abuztuaren 12an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile naizen Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, Arau Proposamen hau aurkezten dut, Udalbatzan aztertzeko, **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala** aldatze aldera.

JUSTIFIKAZIOA

COVID-19K eragindako osasun krisiak krisi ekonomiko bat eragin du, eta oraindik ez dakigu zein izango den haren helmena. Familiei eta enpresei eragiten die krisi horrek. Hala ere, uste dugu ondoen daudenei dagokiela gehien laguntzea, eta, gure irirtziz, milioi bat euro baino gehiago fakturatzeko duten enpresak egoera hobean daude krisi honi aurre egiteko. Gainera, neurri horrek balioko luke etxe guztietan, diru sarrerak gorabehera, berdin eragiten duten beste tasa batzuk igo behar ez izateko.

Horregatik proposatzen dugu Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren eranskineko koefiziente bakarra 3 igotzea, eta, horren ondorioz, 2,266ko koefiziente bakar bat izatea.

Horiek horrela, honako hauek onartzea proposatzen diogu Donostiako Udalbatzari

AKORDIOAK

LEHENENGOA:

Onartzea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza aldatzea, azalpen zatian deskribatutakoaren arabera, koefiziente bakarra % 3 igota. Hala, 2,266 izango da.

BIGARRENA:

Akordio hau izapidetzea 2021ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sar dadin, 11/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituta. Ulertu beharra dago behin-behineko prozedura behin betiko bihurtuko dela erreklamaziorik aurkezten ez badute.

Sinatua: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.